

HERNANIK kronika

2003 urtea
Ekainak 29
Igandea
Alea: 810
www.kronika.net



Antzerkia egin zuten partaideak ekitaldi bukaeran. Hilabete eta erdian aritu dira partaideak astean bi aldiz entsaiatzent.

Biteriko eskola zaharreko kontuak gogoratu zituen San Joan Konpartsak, festetako azken egunean

■ Biteriko eskolan ibilitako aitonak joan ziren karroza gainean, ikasle jantzian, eta ondoren antzerkia egin zuten Gudarien plazan beste hamar hernaniarrek ■ San Joan jaiei ostiralean eman zitzaien bukaera ofiziala, ikurrina eta Hernaniko bandera jaistearekin.

SAN Joan Konpartsak antolatuta, Biteriko eskola zaharreko kontuak gogoratu ziren ostiralean Hernanin. Karroza bat prestatu zuten eskola zaharreko gela balitz bezala, eta hango pupitreetan eserita joan ziren Biteriko eskolako garai hura bizi izan zutenetako batzuk. Atzean antzerkia egingo zutenak joan ziren eta baita Konpartsako kideak ere. Kardaberaz kalean behera eta Kale Nagusian gora egin zuen buelta karroza eta bidean bildutako jendetza lagundu zion Gudarien plazaraino.


Antzerkian bi gela irudikatu zituzten: neskena eta mutilena. Franco eta Primo de Riveraren irudiak eta bandera espainola aurrean zituztela, *Cara al Sol* kantatzen sartu ziren antzezleak eszenatokira. Horrek ikusleak parrez lehertzen jarri zituen, eta antzerkiaren momentu guztietan giro horri eutsi zioten antzezleek. Bukaera txalo zaparrada haundia eskaini zien ikusleek antzezleei eta antolatzaleei.

Urte guztiko lana

Antzerkia antolatzea San Joan Konpartsako kideen idea izan da eta bada urtebete martxan hasi zirela. Antzerkia hernaniarrek egin dute eta hilabete eta erdian astean bi egunetan entsaiatu dute beren papera. Dekoraziorako traste asko utzi dizkiete Tanttaka taldeak eta Hernaniko monjek. Antzerki guzti bideratzen Ruth Martin aritu da.

Ikurrina jaistea: Betiola-Elizatxo txarangak eta Txistulari bandak

Ostiralean bukatu ziren ofizialki San Joanak, ikurrina jaistearekin. Ikurrina jaitsi zutenak aurtengo bi talde omenduak izan ziren: Betiola-Elizatxo txaranga eta Txistulari banda. Ikurrina jaitsi eta gero plaza bete jenderi hitz batzuk egin zitzakion. Mezua erderaz zegoelako jendeak txistu jo zuen eta diskurtsoa bere horretan utzi zuten. Ondoren zezen-suzkoak mugitu arazi zituen plazakoak. □



Plaza leporaino beteta zegoen omendutako bi taldeek ikurrina jaistean.

SANTA BARBARA
PEUGEOT

Tailerrak: Laramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 ☎ 943 551139 / 943 551979
Auto eta furgoneta zaharrak, 2.eskukoez aldatzen ditugu

Jeep Cherokee 2.5	TDI	SS-BB
SAAB 2000 Coupe	Diesela	1.995urtekoa
Fiat 1 -	Diesela	GI-AY
Opel Astra	Diesela	NA-AK
Renault Megane Coupe	Sport	SS-BJ
Renault Express	Diesela	SS-AS
Lada Niva	Gasolina	SS-AP
1.000 eta 2.000 eurotan beste hainbat kotxe		
...eta hainbat kotxe merke		

JOMXA
EDARITEGEA

Kale Nagusia, 7
☎ 55 00 32
HERNANI

Zimak
ILEAPAINDEGIA

Iturregi, 2 - 1ºB
Hernani
Tel.: 943 556556

ARALAR TABERNA
Zapa 8 - ☎ 943 33 15 06 -

LAN ESKAITZA
Guarderia eta zentru publikoetako
deialdiak laster

HAURRAK ZAINTEKO PERTSONALA
Haurak zaintzeko L.H.2/F.P.2
derrigorrezkoa

Informa zaitez: 943 444 509



Atzoko sarituak, sariketako epaileak eta Jaurlaritzako eta Andoaingo Udaleko arduradunak.

Ixiar eta Estitxu Eizagirre hernaniarrek jaso dute aurtengo 'Rikardo Arregi Kazetaritza Sari Nagusia'

■ Argia aldizkarian astero egiten duten elkarrizketagatik jaso dute saria.

RIKARDO Arregi Kazetaritza Saria jaso zuten atzo Ixiar eta Estitxu Eizagirre hernaniarrek, Argia aldizkarian astero egiten duten entrebista zentralagatik. Rikardo Arregi Saria Andoaingo Udalak ematen du urtero eta bera da euskal prentsaren barruan garrantzi haundienetako duen saria. Atzo ere komunikabide eta jende asko izan zen sari banaketan.

Ixiar eta Estitxuk lortu zuten Sari Nagusia eta 25 urtez azpikoetako Amets Arzallusek eraman zuen, Euskadi Irratiko Goizean Behin programan egindako artikuluenagatik. Beste bi aipamen ere

izan ziren. Bat Leire Kortabriak jaso zuen Goiena aldizkarian idatzitako artikulu batetik; eta beste aipamena Euskal Herrian izandako hiru euskal egunkarik jaso zuten: Eguna, Egunkaria eta Egune-rok, hain zuzen ere.

"Errekonomendua eta poza" Bi hernaniarrak oso gustora ziren saria jasotzeagatik eta Kronikari esan ziotenez, aurrera lanean jarraitzeko indarra emango die sari honek: "egin-dako lanaren errekonozimendua da sari hau. Aldizkarian idazten dezunean ez zera kontratzen zenbat jendek irakur-

tzen edo aztertzen duen zure lana, eta alde horretatik poza eman digu sari hau jasotzeak", zioen Estitxuk.

Ixiar eta Estitxuk hirugarraren urtea dute Argian lanean, eta dagoeneko 140 elkarrizketa inguru argitaratu dituzte. Elkarrizketak egin dizkien artean daude: Bernardo Atxaga, Titin pelotaria, Juan Cruz Alli, Maialen Lujanbio, Fermín Muguruza, Iñaxito Albi-su, Aimar eta Asier Olaizola, Pello Zubiria, Jesus Jiménez (Iniciativa Gitanako burua), Martin Ugalde, Alfonso Sasstre, Paulo Tikiya bertsolaria eta abar luze bat. □

■ PELOTA - HERRI ARTEKO TXAPELKETAKO FINALA GAUR

Hernani hirugarren txapelaren bila

HERNANIK Gipuzkoako Henri Arteko Pelota Txapelketako finala jokatuko du gaur, Azkoitiaren kontra. Hernani rentzat hirugarren txapela litzateke gaur irabazi ezkerro, baina, gauzak oso parekatuta daude, Rufino Rekalde arduradunak Kronikari esan dienez. Klabea, dena dela, azken partidura enpatearekin iristea da Rekaldek zioenez.

Hernaniko taldeetik jokatuko dutenak dira: kadeteetan: Aizpitarte-Gorrotxategi; jubeniletan: Arrieta-Otegi; eta seniorretan: Erroizenea-Mendizabal. Finala, gaur 10:30etan hasita, Atano III frontoian □



Hernaniko pelotariak, aurtengo finalerdietan.

■ PELOTA

Oiaga - Gabarrik 22-14 irabazi zuten eta Esnal - Errandoneak 22-12 galdu

■ Esnalek lesionatuta jokatu zuen ia partidu guztia.

OSTIRALEAN San Joanetako Pelota Torneoia izan zen kirolegian. Bi pelota partidu izan ziren. Lehenengoan Oiagak jokatu zuen Gabarrirekin eta 22-14 irabazi zuten Barberito IV eta Elolaren kontra. Bigarren partiduan, Esnal eta

Errandoneak 22-12 galdu zuten Arretxe eta Alustizaren kontra. Esnalek partidu erdia baino gehiago lesionatuta jokatu zuen, zain-tiratu bat izan baitzuen hasieran. Horrek asko behartu zuen hernaniarra eta ezin izan zuen irabazi. □

■ PELOTA

Hernaniko umeentzako txapelketan 150 parte hartzaile izan ziren

■ Parte hartzaileek 3 mailatan banatuta jokatu zuten.

OSTEGUNEAN Hernaniko umeentzako pelota txapelketa jokatu zen kirolegian, Hernaniko Pelota Elkarteak antolatuta eta kirolegiaren laguntzarekin. Guztira 150 umek jokatu zuten txapelketa, eta 3 mailatan banatuta jokatu ziren partiduak. Honakoak izan ziren irabazoleak: Benaminetan,

nesketan: Irazustabarrena eta Jorrin; eta mutiletan, A mailan: Lopez eta Polaina, eta B mailan: Olabide eta Zubillaga. Alebinetan, nesketan: Perez eta Gutierrez; eta mutiletan: Aranburu eta Zapiain. Infantiletan, nesketan: Lucas eta Gerra; eta mutiletan Arrieta eta Lizeaga. □

Belarritakoa eta pultsera galdu dira

Urre koloreko belarritakoa galdu da Axeri Dantzako ibilbidean. Marra kruzatuak ditu eta puntu txikiak ditu. Zerbait eskainiko da. Tel.: 943 33 57 03

Umearen pultsera txiki bat galdu da. Malen jartzen du eta data. Amona mantangorriak dauzka. Barraketan edo Tilosetan galdu da. Tel.: 943 55 68 12.

ZERBITZUAK

■ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

■ FARMAZIAK

- Egunez: Correa Perkaiztegi 8
943 551933
- Gauet: Atxa-Orbea Lasarte. Hipodromo 6
943 363549



Euskaltel
Hautaketa / Seleccion

Murriztu zure

deien kontua

Abantailak:

- 1050 aurrezenbakia ez duzu markatu behar
- Tarifa askoz merkeagoak izango dituzu

eta gainera...
musika CD bat
izango duzu opari



Banatzaile Ofiziala

Euskaltel

Kardaberaz kalea 68
Tel.: 943 33 60 25
Faxa: 943 33 50 79
20.120 HERNANI